

2018ko iraila



Azaro Fundazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz, eta Leartibai Garapen Agentziarekin eta Lea-Artibai Ikastetxearekin elkarlanean, martxoaren 8an (Emakumeen Nazioarteko Egunari keinu eginez) martxan jarritako programa da EMEekin. Lea-Artibai eskualdeko emakume langabetuei zuzenduta, hauen ekintzailetza eta kalitatezko enplegu egonkorak bultzatzea da bere helburua. Formazio programa berritzaile baten bitartez emakumeak ahaldundu eta egungo lan mundurako beharrezkoak diren tresnak ahalbidetzen zaizkie, laneratzeko momentuan prest eta konfiantzaz sentitzeko.

Bukatu berri den ekimen honen lehen edizioa da aurtengoa eta guztira eskualdeko 8 emakumek hartu dute parte programan, guztiak helburu bakarrarekin: gaitasun pertsonaletan eta hainbat kompetentzia teknikotan dituzten ezagutzak sakondu, laneratzeko orduan euren burua ahaldundu eta indartsu ikusteko.



Adin zein errealitate ezberdinetako emakumeak elkartu dira programan eta horrek esperientzia aberasgarria izaten lagundu du, elkarren artean ezagutzak partekatzea ahalbidetu duelako. Parte hartzaileek oso balorazio ona eman diote ekimen berritzaile honi, era honetako iritziak utzi dituztelarik:

*“Emakume talde zoragarri baten parte sentitzea izan da niretzat EMEekin programa. Izate eta*

*bizipen ezberdin askotako emakumeak ezagutu ditut eta horrek nire egunerokotasuna aberastu du. Programa oso aberasgarria izan da, eta negozio ereduetan ezagutzen ez nituen errealitate asko erakutsi dizkit. Gainera gai ezberdin asko jorratu ditugu eta gaur egungo lan merkatuan zer eskaini behar dudan eta zer eskaintzen den erakutsi dit’.*

EMEekin programan formazioa eskaintzeko modua ez da ohikoa izan, online klaseak astean bost orduko klase presentzialekin konbinatu baitira. Parte hartzaileek gai ezberdinak jorratzen dituzten bideoak ikusi dituzte etxean, eta dudak argitzeko edo galderak erantzuteko tutorearekin etengabeko harremana izan dute emailaz zein telefonoz. Astean egun baten (batzutan bitan) klase presentzialak izan dituzte, dinamikoak eta ikasitakoa modu erlaxatu eta erraz batean barneratzeko prestatutakoak. Metodologia berritzaile honen bitartez, IKT tresnen erabilera bultzatu eta familia bizitzarekin bateragarritasuna erraztu nahi izan dira.

Ekimenaren arrakasta eta parte hartzaileengan nabaritu den aldaketa ikusita datorren urtean ere programa honen edizio berri bat egitea erabaki da.